

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako liburutegi publikoek hainbat ekintza antolatu dituzte "Liburuaren Eguna" ospatzeko"

*Museoek ostegun honetan egingo den jardunaldiko bookcrossing-arekin bat egingo dute*

Martes, 21 de abril de 2015

Ohikoa den moduan, Nafarroako liburutegi publikoek ostegun honetan, maiatzak 23, Liburuaren Eguna ospatuko dute heldu nahiz haurrentzako ekintza ugarirekin. Aste gutzian zehar hitzaldiak, musika-ipuina, kamishibai, magia, orri-markagailuko lehiaketak, tailerrak... izango dira.

Jardunaldi horrekin, 1616 an Miguel de Cervantes eta William Shakespeare hil ziren datarekin bat eginez, UNESCOk irakurketa, argitaletxeen industria eta jabetza intelektualaren babesa sustatu nahi ditu egile-eskubidearen bidez.

Nafarroako liburutegi publikoetan egun hauetarako programatutako ekintzak honako hauek dira:

### Musikako ekintzak:

-Tafalla, *Do se jota* izeneko haurrentzako ikuskizuna; Nafarroako lau musikariren ibilbidea da (apirilak 21, 08:30).

-Cintrueningon, musika-ipuina, astelehenean, hilak 27, 17:15ean eta 18:00 etan.

**Zinema:** San Adrianen, "Balzac y La Joven Costurera" filmak emango dira (apirilak 22, 17:00).

**Haurrentzako ipuin-kontaktak:** ondorengo liburutegi publikoetan: Andosilla (apirilak 23, 18:00). Ablitas (18:00), Azagra (apirilak 23, 17:30), Cintrueningo (17:30), Faltzes (apirilak 21, 18:00), Fitero (apirilak 28, 18:00), Mendillorri (apirilak 21, 18:15), Oteitza (apirilak 24, 17:00), San Adrian (apirilak 22, 17:30), Iruñeko San Frantzisko liburutegia (apirilak 23), Mendabia (apirilak 23, 12:00); "La Gran Contada", ipuin-kontakteta kolektiboa, eta bertan herritarrak ipuin-kontalari bihurtzen dira egun batez, Noaingo liburutegian (apirilak 29, 18:10).

**Ipuin-kontakteta kamishibai-rekin:** San Adriánen (apirilak 29, 17:30)

**Euskarazko ipuin-kontaktak:** Noaingo liburutegian (apirilak 22, 18:10)

**Helduentzako ipuin-kontaktak:** ondorengo liburutegi publikoetan:



Liburutegi publikoek hainbat ekintza antolatu dituzte Liburuaren Eguna ospatzeko.

Ablitas (apirilak 21, 19:00) Azagra (apirilak 22, 20:00), Mendabia (apirilak 21, 19:30) eta Iruña-San Frantziskoko liburutegia (apirilak 23).

### **Hitzaldiak eta liburu-aurkezpenak:**

-Nafarroako liburutegi orokorrean, Felix Marañak "Barojatarren liburutegiak" izeneko hitzaldia eskainiko du (apirilak 22, 19:00).

-Altsasuko liburutegi publikoan, Fermin Goñik "Todo llevará su nombre" izeneko liburua aurkeztuko du (apirilak 23, 19:00).

-Tokioko hirigintzari buruzko hitzaldia, Iruñeko Yamagucho liburutegi publikoan, hilaren 23an, 19:30ean.

-San Adriangoan, Estela Chocarrok "El próximo funeral será el tuyo" liburua aurkeztuko du eta harekin egoteko aukera izango da (hilak 23, osteguna, 19:00).

-Barañaingo liburutegi publikoan narrazioaren munduan aurten debuta egin duten 3 egileren nobelak aurkeztuko dira (apirilak 21, 19:00)

-Mendabian (19:30) José Ramón Villaverderen "Deconstrucción de una lágrima" nobela aurkeztuko da.

-Toti Martínez de Lezea idazlearekin eta Maite Itoiz sopranoarekin topaketa, Valtierako liburutegi publikoan (apirilak 23, 19:00).

-Iruñeko San Pedroko liburutegian, Arkaitz Leon Muelak " Las tierras en juego " izeneko lehen obra aurkeztuko du (apirilak 22, 19:00).

**Lehiaketak:** Tafallako mikro-kontakizunen lehiaketako sari-banaketa (apirilak 23, 20:00)

### **Erakusketak:**

- Mendabiako orri-markagailuen erakusketa (aste guztian).

-Lizarrako kultur anztasunari buruzko erakusketak (irakurketa-aretoan eta haurrentzako aretoan).

-Atzoko eta gaurko liburuen erakusketa. Belaunaldi askotako irakurketak, Berriozarko liburutegian.

**Irakurketa publikoa:** Miguel de Cervantesen "On Kixote Mantxakoa" obraren kapitulu eta testu batzuk hautatu eta irakurriko dira, Caparrosan (apirilak 23, 17:00etatik 19:00etara) eta Cintruenigon (apirilak 23, udalerriko hainbat lekutan).

**Magia:** magia-ikuskizuna, ipuinak, malabarrak... Arroitzen (apirilak 23, 17:30).

**Liburuak trukatzeko azokatxoak:** Noaingo liburutegia (apirilak 23).

**Poesia-errezitaldia:** Larragako liburutegian, Paco López Lasterraren eskutik (apirilak 24, 18:00, Mojen Etxean).

### **Tailerrak eta ikastaroak:**

-San Adrianen, haurrentzako liburuen artisau-tailerra (apirilak 21, 17:30etik 19:00etara).

-Ilustrazio-tailerra Ziordiako liburutegian (apirilak 24, 18:00etatik 20:00etara).

-Orri-markagailuen tailerra Melidako Santa Ana CPEIPko Haur eta Lehen Hezkuntzako haurrekin (apirilak 23)

### **Eskola-bisitak:**

- Azagran (apirilak 23)

- Méridan (apirilak 22 eta 23).

Liburutegi bakoitzeko berariazko ekintzen informazio gehiago [Liburutegi Publikoen webgunean](#), Nafarroako Liburutegi Publikoen [informazio-buletinean](#) eta [gailu mugikorretarako app](#) ekintzen egutegian aurki daiteke.

### **Museoek bookcrossing programarekin bat eginik**

Nafarroako museoa, Karlismoaren museoa eta Julio Caro Baroja museo etnologikoa Gasteizko Artium museoak koordinatzen duen bookcrossing programarekin bat egingo dute ostegunean, apirilak 23, egingo dena. Bosgarren urtez jarraian parte hartzen dute Nafarroako hiru museoek ekimen honetan.

Guztira, Espainiako 54 zentrok eta museoak bat egingo dute bookcrossing esperientziarekin, eta hirietan hainbat diziplinari lotutako 2.000 liburuki askatuko dira. Haietatik, 17 ale Nafarroako hiru museoetakoak izango dira. Askatze hori Iruña, Lizarra, Gares, Asterain eta Sarrigurengo puntuetan egingo da.

Askatutako liburu guztiak beren txartelarekin egiaztatuko dira, eta beharrezko jarraibideak jasoko

dituzte irakurleak kanpainan parte har dezan; [www.bookcrossin-spain.com](http://www.bookcrossin-spain.com) webgunean erregistratuta izango dira, eta bertan irakurleek ale bakoitza non askatuko duten adierazi ahalko dute.

Gainera, Caparroson zenbait liburu askatuko dira udalerrian arratsaldean zehar.

### **Liburuaren Eguna**

1616ko apirilaren 23an Miguel de Cervantes eta William Shakespeare hil egin ziren. Data horretan jaio eta hil ziren ere beste idazle ezgaun batzuk, esaterako; Maurice Druon, K. Laxness, Vladimir Nabokov, Josep Pla edo Manuel Mejía Vallejo.

Arrazoi hori dela-eta, literatura unibertsalerako hain sinbolikoa den data hori hautatu zuen UNESCOren Konferentzia Orokorrak liburuari eta haien egileei mundu-mailako omenaldia eskaintzeko, eta guztiei adorea emateko, gazteei bereziki, irakurketaren plazera ezagutu dezaten, eta sortzaileek gizartearen aurrerabidean nahiz gizadiaren kultur aurrerabidean emandako laguntza ordezkazina errespetatu dezaten.

Gai horri dagokionez, UNESCOk Liburuaren Nazioarteko Eguna eta Egile Eskubidearena sortu zuen, bai eta Tolerantziaren aldeko Haur eta Gazteen Literaturako UNESCO Saria ere.

Nafarroako Gobernuako Liburutegien Zerbitzuak ekimen hri babesten segitu nahi du, eta arrazoi horrekin, 410 kartel eta 18.600 orri-markagailu argitaratu dira, bi bertsiotan, gaztelaniaz eta euskaraz. Materialen diseinua Nafarroako Javier Muñoz eta Gonzalo de Pedro diseinatzaileen lana izan da.

Aleak Nafarroako liburutegi publikoetan doan har daitezke.